



Astigarragako Udala

udala@astigarraga.eus

IRAGARKIA

Jakinarazten da, 2024ko otsailaren 27an buruturiko ohiko udal osoko bilkuran, aho batez, AJAko 206 artikulua salbuespenarekin, besteak beste, honako erabaki hau hartu zela:

Se notifica que en sesión plenaria ordinaria celebrada el 27 de febrero de 2024, se adoptó, por unanimidad, con la excepción del artículo 206 del ROF, entre otros, el siguiente acuerdo:

Udalerriko anbulatorio berria kokatzeko HJE 9 "Ergobia ibilbidea" eremuan partzela bat ekipamendu-sistema orokor gisa kalifikatzeko Astigarragako HAPOn testu bateginaren 7. aldaketa puntualaren espedientea.

Expediente de la 7ª modificación puntual del texto refundido del PGOU de Astigarraga para calificar como sistema general de equipamiento una parcela en el AIU 9 "Ergobia ibilbidea" para ubicar el nuevo ambulatorio del municipio.

Lehenengoa.- Astigarragako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren testu bateginaren 7. aldaketa puntualaren espedienteari hasiera ematea, HJE 9 "Ergobia ibilbidea" eremuan partzela bat ekipamendu-sistema orokor gisa kalifikatzeko, udalerriko anbulatorio berria kokatzeko.

Primero.- Incoar el expediente de 7ª Modificación Puntual del Texto Refundido del Plan General de Ordenación Urbana de Astigarraga para calificar como Sistema General de Equipamiento una parcela en el A.I.U. 9 "Ergobia Ibilbidea" para ubicar el nuevo ambulatorio del municipio.

Bigarrena.- Astigarragako HAPOn testu bateginaren 7. aldaketa puntualaren herritarrek parte hartzeko programa onartzea, erabaki honekin batera doana eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren web orrian (www.astigarraga.eus) argitaratuko da.

Segundo.- Aprobar el programa de participación ciudadana de la 7ª modificación puntual del texto refundido del PGOU de Astigarraga, que se acompaña al presente acuerdo, y que será publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en la página web del Ayuntamiento (www.astigarraga.eus).

Hirugarrena.- Informazioa eskatzea babes zibilaren, ingurumenaren, kultura-ondarearen eta natura-ingurunearen gaineko eskumenak dituzten Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundiko organoei, 2/2006 Legearen 90.1 eta 2 artikulua betez, aldaketaren eraginpeko lurzatiaren kokapenaren plano bat erantsita.

Tercero.- Solicitar información a los órganos competentes en materia de protección civil, medio ambiente, patrimonio cultural y medio natural del Gobierno Vasco y de la Diputación Foral, en cumplimiento del artículo 90.1 y 2 de la Ley 2/2006, adjuntando un plano del emplazamiento de la parcela afectada por la modificación.

2024ko otsailak 27a

